



AUTOBUSAK EROSTEA – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura ireki bidez kontratazeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
<p>KONTRATUAREN XEDEA:</p> <p>Autobusen erosketa, pertsonen garraio publikoak eragiten dituen inpaktu kaltegarriak murrizteko ingurumen-irizpideetan oinarritutakoa.</p>	<p>KONTRATUAREN XEDEA:</p> <p>Autobusen erosketa, pertsonen garraio publikoak eragiten dituen inpaktu kaltegarriak murrizteko ingurumen-irizpideetan oinarritutakoa.</p>
<p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p> <p>Emisio kutsatzaileak</p> <p>1. Ibilgailuek «ECO» kategoría izan behar dute gutxienez, DGTren sailkapenaren arabera¹.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> Abal hau aurkeztu beharko da: 1.a edo 2.a (ikus egiaztapen-dokumentuak).</p>	<p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p> <p>Emisio kutsatzaileak</p> <p>1. Ibilgailuek «ECO» kategoría izan behar dute gutxienez, DGTren sailkapenaren arabera¹.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> Abal hau aurkeztu beharko da: 1.a edo 2.a (ikus egiaztapen-dokumentuak).</p>

¹ Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak eta hura garatzen duten erregelamenduek betebeharraren salbuespenak aurreikusten badituzte, justifikatutako kasuetan, «C» kategoría eskatu ahal izango da, «ECO» kategoría eskatu beharrean, hau da, gasolina edo gasolioa izatea eta EURO VI estandarra betetzea.

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:	ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:
<p>Energia-kontsumoak, gehienez 15 puntu</p> <p>2. Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikiagoa (kWh/km-tan) izatea, UITPren (Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartearen) SORT estandarren edo baliokidearen arabera.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean txertatutako produktu bakoitzeko, hauetako abalen bat aurkeztu beharko da: 1.a edo 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>	<p>Energia-kontsumoak, gehienez 12 puntu</p> <p>2. Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikiagoa (kWh/km-tan) izatea, UITPren (Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartearen) SORT estandarren edo baliokidearen arabera.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean txertatutako produktu bakoitzeko, hauetako abalen bat aurkeztu beharko da: 1.a edo 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
	<p>Gas hozgarriak, 3 punturaino</p> <p>3. Baloratuko da ibilgailuaren aire girotuaren sistemak atmosfera berotzeko ahalmena 150 edo txikiagoa duen gas hozgarri batekin funtzionatzea (100 urterako CO₂ari dagokionez) . Gas-nahasketa bat erabiliz gero, potentziala gas bakoitzak pisuan duen ehunekoaren arabera kalkulatu da formula honen arabera: $\sum [\text{gasareni } \% \times \text{gasaren } i \text{ PCA}]$. PCA balioak 517/2014 (EB) Erregelamenduaren eranskinetan daude.</p> <p><u>Egiaztapena:</u> <i>Proposamenean txertatutako produktu bakoitzeko, hauetako abalen bat aurkeztu beharko da: 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):	
1. Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa	3. Fabrikatzailearen adierazpena
2. DGTren etiketa	4. Testa SORT estandarren arabera
<p>(*). Hau da informazioa jasota egon daitekeen dokumentazioa, beste egiaztagiriko baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak bete direla argi eta garbi frogatzen bada.</p>	

OHARRAK:

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarria izan daiteke ibilgailuaren ekipamendu espezifikuari buruzko eta erabilitako produktuei eta mantentze-lanei buruzko baldintzak ere adieraztea.

*Informazio gehiago nahi izanez gero, **Ihoberen webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala** kontsulta dezakezu edo Ihoberekin zuzenean harremanetan jar zaitezke, posta elektronikoko bidez: compra.publica@ihobe.eus*